



HAL
open science

Lexikoaren bilketaren baldintza zenbait

Charles Xarles, C., X. Videgain

► **To cite this version:**

Charles Xarles, C., X. Videgain. Lexikoaren bilketaren baldintza zenbait. pp.559-576. artxibo-00000043v2

HAL Id: artxibo-00000043

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00000043v2>

Submitted on 16 Dec 2005

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

LEXIKOAREN BILKETAREN BALDINTZA ZENBAIT

Xarles VIDEGAIN
EHHA, Euskaltzaindia

SUMMARY

Dialectologists -in monographic works, but also in atlas surveys as is the case currently for the linguistic atlas of the Basque Country- must work *in situ*, near speakers, so that the material obtained may be used for the construction of a local dictionary of language and culture. Here, the emphasis is not on the minimal information which is essential for an atlas -it can be assumed that the problem is resolved- but on a preoccupation for semantic precision and even, therefore, on the conditions under which lexical forms are obtained: thus, the stereotype provided ad hoc is often much more profitable when working with the speaker than only a prototype. The ethnographic way is assessed as a privileged form of obtaining access to the lexis of a community. Phraseology (metaphors, comparisons, proverbs, etc.) is considered as a good indicator of lexical activity. The samples taken are not limited to words but are extremely varied texts and discourses, ranging from accounts of experiences to technical instructions including several versions of mythical narratives (sometimes unknown) which take dialectology to the threshold of anthropology.

RESUMEN

En trabajos monograficos así como en las encuestas realizadas para la elaboración de atlas lingüísticos, coma el casa del Atlas lingüístico del País Vasco, el dialectólogo trabaja *in situ*, con el hablante, de manera que el material recogido pueda ser utilizado para preparar un diccionario de la lengua y cultura de un lugar determinado. Dando por resuelto el problema de las informaciones mínimas a recoger para un atlas, nos preocupamos aquí de la precisión semántica, incluyendo también en qué condiciones se obtienen las lexías; a menudo, el estereotipo que se propone al hablante de manera espontánea da mejores resultados que el prototipo en sí. La vía etnográfica se valora coma acceso privilegiado al léxico de una comunidad. Se considera la fraseología (metaforas, comparaciones, refranes y demas) coma un buen indicador de la actividad léxica. Así pues, mas alla de palabras sueltas, se recogen textos y discursos de gran variedad, desde los relatos de experiencias hasta las instrucciones técnicas, pasando par distintas versiones de cuentos míticos, a veces desconocidos, y que llevan al dialectólogo hasta los umbrales de la antropología.

IKER 7, 559-576

Azken bulta honetan lexikologiak agerian utzi dituen fenomeno eta arau batzuk, dialektokogian egiten diren inkestetan guti edo aski aplikatzea probetxugarri bezain beharrezkoa dela erakutsi nahi dut. Hizkuntza baten lexikoa ez baita erraiten zen bezain kaotikoa, lexiko hori lekukoen ezpainetatik nola bil proposatuko dut, bete behar diren baldintzetarik zenbait aipatuz.

Eginen ditudan gogoeten osatzeko datuak pratika batek erakutsi dizkit, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean eta beste monografia zenbaitetan inkestak eginez (Videgain, 1989). Lan horietan baliatzen dudana metodologiaren ezaugarri zenbait aipatuko ditut, eta eremu geografikoari dagokionez, oroz gaineratik Baxenafarratik eta Zuberotik harturik izanen dira beharko ditudan adibideak.

Beraz, dialektologia sinkronikoan, ikusmolde geolinguistikoak duen garrantzia ez dut gutietsi nahi, baizik eta lexikoari eta partikulazki semantikari egokitu. Lexikoan, leku batetik bestera zer aldatzen den bilatzen da, bainan so eginez aldaketa-mota bat baino gehiagori: dudarik gabe, lexema baten adierazlea nolaz aldatzen den kontuan hartzen da, eta hortik aterako diren ondorioak baliagarriak dira maila fonetiko eta fonologikoan. Hori jende guziek jakintzat eta onartutzat daukat eta ez naiz horretaz luzatuko.

Gaur gehienik atal batean aipatuko dudana, *lexemaren adieraziaren aldaketa* izanen da. Lexikografiaren lan-katearen lehen partean mugatzen da ene gaurko ekarpena, erran nahi baita lexikorearen bilketan berean. Beraz hiztegi-gintza aurreko epean sartzen da bilketaren metodologia, frantsesez B. Quemadak deitu duen epe "*prédictionnaire*" delakoan (Quemada 1987); baliatzen dudana metodologiak, aurretik kontuan hartzen baititu hiztegi batek behar dituen informazioak. Gehiago dena, erabakiorra izan da metodologi honen osatzerakoan zein hiztegi-mota neukan gogoan.

Hiztegi hori dudarik gabe hizkuntz-hiztegia izan behar da, eta ber denboran kultur-hiztegia ere, Alain Rey eta Jean-Louis Fossat-en hitzak hartuz, *lekuko kultur-hiztegia* edo *dictionnaire culturel localisé*. J.L. Fossatek dioelarik lexikoa behar bat eta kalamitate bat dela, ados naiz harekin. Zama handia da zinez, komunitate baten historia, kultura, patrimonioa eta ontasuna lexiek berekin karreatzen dutena.

Lexia biltzerakoan bi gauzetaz axolatzen naiz oroz gaineratik: alde batetik material funtzionalaz, erran nahi baita, lexiaren erabilera linguistikoaren berri kausitzeaz, eta bestalde material kulturalaz, hau da, lexia batetik abiaturik, lekukoek ezagutzen duketen jakitate entziklopedikoaren berri emateaz. Eta komunitate baten lexikoan sartzeko biderik hoberena etnografia da, edo zenbaitek bide emikoa deitu dutena.

Ondorioz, horra nola eratu dudana egungo hitzaldia:

Lehenik, lexiaren erabilpen linguistikoa aipatuko dut. Gero, semantikaren zehaztasuna nola bilatu behar den. Beste parte batean, fraseologiaren garrantzia. Azkenik, lexia baten inguruan lortzen diren testuak.

Oroit-arazten dut hemengo materiala sinkronikoa eta ahozkoa dela. Bestalde, Van Gennepen ondotik X. Ravierrek "ezezko datu" deitu duen teknika aberasgarria baliatzen dugu atlasgintzan (Van Gennep, 1934; Ravier, 1965). Bestela erranez, galdera semasiologikoak baliatu ondoan, onomasiologia erabiltzen da adierazle zenbait lekukoari aurkeztuz. Erran gabe doa Gilliéron-en "premier jet" delakoaren axioma gainditu dugula.

1. Informazio funtzionala

Laburzki emanik, horra untsalaz lexia eta bereziki izen bakoitzeko biltzen ohi den informazioa: forma fonetikoa eta grafia, kategori gramatikala, zenbakarritasun eta neurgarritasunari buruzko oharak. Denak ezin azalduz, ohar pare bat bakarrik substantiboaz:

1.1. Biltzen dugun lexiari bere kategori gramatikala em'aiten diogu. Izen propio (izen berezi) ala izen arrunta den segurtatu behar gara; bestela erranez, bildutako lexia lexiko amankomuneko den ala xoilik onomastikokoa den jakin behar dugu. Kasu batzuetan, iduriz amankomunak izan behar litezkeen *ibar*, *haran*, *mindegia*, *ibai*, *ordoki*, *zelai*, *losko* bezalako hitzak euskalki askotan ez dira izen arruntak, baizik eta izen bereziak. Herri batean *losko* izen arrunta delarik ('urgune bat'), beste nunbait toponimo hutsa da hala nola *Loskoko Lephoa* Zuberoko Hauze herrian. Batzutan, bien arteko muga ez dute garbi ikusten lekukoek hala nola *labaki* hitzean (fr. 'terre défrichée'), ez baitakite lur peza berezi baten izena den –eta onomastikoari legokioke orduan–, ala balia daitekeen oraindik izen arrunt gisa.

1.2. Antropologiaren aldetik interesgarria da izen zenbaitek duten tratamendua, izen berezi gisa agertzen baitira: fenomeno meteorologikoetan haizeen kasua ezaguna da hala nola *Manex* haizea; edo *Joañes*, ekiaren izena; *Ellande*, argizaitaren izena, baita ere intsektuen izendapenarena: *anderekottagorri*, 'coccinelle' agertzen delarik eta ez *anderekottagorria*, antromorfismoa dela medio, Mario Alineik erakutsi dituen fenomeno sakon direla medio.

2. Lexia eta semantika

Baina oinarrizko informazio funtzionala bazter utzirik, bigarren atal bat gehiago sakondu nahi dut arrangura semantikoak bultzaturik.

Lexia baten edukin semantikoa zer neurritan kanbia daitekeen, erakutsi nahi dut atal honetan. Ene arrangura adieraziari buruzko zehaztasun-nahia izanen da oroz gainetik.

Alabainan, lexikoak errealitatea nola zatikatzen eta sailkatzen duen kontuan artesa ezinbestekoa da, galdakizun ona prestatzekotan. Eta galderen

egokitasun semantikoa lortzeko egiten ditugun entseguen berri emanen dut. Lexiko berezituak ekartzen dituen hiperdesberdinketak aldiz ez ditut azalduka. Bainan lekukoak balia litzakeen ihespideak ezagutzea on da, berak demaigun lehen erantzuna fidagarria ez ezik beste lekukoaren erantzunekin erkagarria den ala ez aztertzeko. Gure interesa hartze luketen erregistro-jokuak eta enuntziatio-baldintzen eraginak gaur hunkitu gabe utziko ditut.


Xehetasunetan sartu aintzin, eta orokorki mintzatuz, hobe da lexia bera kontestu batekin lortzea. Jakina da lexia adierazkorragoa dela testu batean arropaturik eta kokaturik, ezen eta glosario batean biluzirik. Eta lekukoak testu esplikatzaile, azaltzailea emaiten badu, hainbat hobe! Gero lekukoaren testuak daramazkeen enuntziatio-markak errespetatu behar ditu transkribapenak. Testu azaltzaile hori dudazkoa, diskutigarria, auzian jartzekoa izan daiteke, bainan interesgarri. Lekukoak emaiten duelarik definizio bat, erran nahi baita perifrasis sinonimikoa, helburu didaktiko halez, linguistarentzat pertinente ez diren ezaugarriak eman ditzake, edozein hiztegitan bezalaxe, definizio kulturala ez baita definizio zientifikoa izan behar. Adibide gisa, horra Ziberuko lekuko batek eman diguna, '*ombre, sombra*' galderaren inguruan. Espero zen *itzal* lexiaren ondotik *arrabat* ere badagoela horrela azaltzen du:

ogen egiten balinbadü, baatzian khantian edo alhor baten zolan, edo hola zühan balinbada, itzala ez eginik e, aidia ezpada heltzeat uzten hua arrabat deitzen da. Itzala, hua, segurki, ekhia osoki thapatzen dien hua, zühan batek beak iten ahal dü itzala bena ez arrabata. Arrabatan iteko behar dü bat beno haboo, han, baakizü, zühan segida bat, hak egiten dü arrabata. Lürra praubeago da erran den arrabatak janik den lur hua praubeago da, segur, bai, bai, bai; badü mensa aidian eta ekhian e bai segurra, bena aidian phü mens handia badü. Aldiz zühañ batek itzala egiten balinbadü, hau zühafi bat düzü, ekhiak horra egiten badü, ekhia kurritzen edo gü, lürra kurritzen beikia ekhian üngürian, ordian eztü ber lekhian igorten itzala, aldiz arrabat bethi han beita.

Dudarik gabe, hiztegi askotako definizioetaz gain zitazioak ere hiztegi-egileek berek egiten baitute araudi tinta zenbait errespetatu nahiz, aurrekopasarte hori ez da jario hartakoa. Segur aski, definizio azaltzailea dakarren testu honetan, orokortasun eta abstrakzio falta du, hiztegi batek xerrenki kentzen dituen elementu fatikoak badauzka, eta Galileoz geroztikako ikusmoldea ez liteke beharrezkoa hiztegiaren definizioan. Halere, dagoen bezala, freskotasun eta orijinaltun handikoa dela iduritzen zait, areago lekukoak esplikatzen duen arrabat hitza ez delarik dokumentatua euskal lexikografian (etorkiaz, ikus gaskoinezko "rebàt", "rebàch").

Harira itzuliz, lexia batek nolako edukin semikoa badukeen kontuan hartzea, oso inportanta da lekukoari galderaren egiteko tenorean. Teoriaren aldetik, esterotipoen eta prototipoen arteko diferentzia gehiegi sakondu gabe, argi dago, erantzuna estimulatzen duen perifrasisa askotan esterotipoa dela, erran nahi baita lekukoaren komunitateak berea egin duen edukin semantiko iraunkorra. Gehiago dena, erreferentea bera lekukoak ez daki beti izendatzen, nun ez zaion bermatzen gizarte-arauen araberako jakitateari.

Adibide batez ulertuko da. Horra animale baten argazkia (ik. 1. argazkia) eta haren definizio zientifikoa: "itsas hotzetan bizi den gadiforme motako arrain handia". Gutxi dira erantzunik daukaten lekukoek, horrek erakusten baitu prototipoa ez dela nahikoa. Definizio horri erantzen badiogu elementu esterotipikoa: "Ternoako uretan arrantzatzen da", eta are gehiago "lehen, ortziraletan jaten ohi zen elizaren manuz", berehala datorke lexema-erantzuna: *merluza*, *bakalau*, *arrain zaharra*, etabar.



1. argazkia

Gauza bera gerta daiteke ondoko kasuarekin (ik. 2. argazkia): xori hau argazkitik beretik lekuko hainitzek ez dute berehala ezagutzen. Haren kantuaren berri edo eta martxoaren 25ean Erromatik itzultzen amen dela entzutearekin, *kuku*, *kükü* lexiak berehala emaiten dituzte.



2. argazkia

2.1. Galderen egokitasun semantikoa

Galderen egokitasun semantikoa ardietsi behar da. Ahalaz, hotzean eta inkestara joan gabe, galdakizuna bera prestatzen den unean osatu behar da, edo bestenez, beroan, inkesta egiten den mementoan berean.

Hotzean prestatzen da ahalaz item gehienetan, errealitearen sailkatzeko ikertzen dugun mintzairak dituen baliapideak nolakotsuak diren aintzinetik badakigularik. Ezagun da frantsesez adibidez, 'mettre bas' hiperonimoak hiponimo zenbait badauzkala: 'agneler, pouliner, vèler', e.a. Dakigunez, euskarak ez baitu halakorik, erdarazko desberdinketa horren berri ez galdegitea gerta daiteke. Aldiz, kabaleen beroaldien izendatzeko bostpasei lexema diferente badirela alde aurretik denek badakigu (*giri, ehausi, hogara...*), eta izendapen haien berri bilatuko dugu behar den bezanbat galdera pausatuz.

Inkestagile askoren jokoa da -eta legezko jokoa- antonimiaz baliatzea lexien biltzeko. Alabaina polo batean den lexia furnitu ondoan, haren kontrakoa xarmanki emaiten du lekukoak. Bainan alor semantiko zenbait ez dira errexki antolatzen. Denetan zailenak izaiten dira alde batetik Lyons-ek polorik gabekoak deitzen dituen alorrak, bereziki ozkadura edo gradazio luze bat erakusten dutenak (Lyons 1980), eta bestaldetik ezaugarri axiologikoak dituzten elementuak.

Adibidez, ondoko antonimoak hartzen baldin baditugu: 'sec-humide' eta lurraz mintzatuz, eragindako erantzunak ez dira beti uste eta nahi zirenak. 'Sec' galdera ahatik ez da zailena, nahiko garbia delakotz sema nausia: /urik ez/. Bainan laborari den lekuko batek, *idor, lehor* edo *xuko* lexien ondotik izendapen metaforiko edo axiologikoa balia dezake, hala nola, *lurra koxkan da, imur tzarrian, gaitzikor* erantzunekin. Bainan nahasiagoa da oraindikan 'humide' galdera, eragiten dituen erantzun-lexien sema nausia /ura duena/ baita. Bainan zonbait ur? Eta uraren kantitatea ez ezik, lurraren kalitatea ere konda da. Hortik dator lekuko batek hamar erantzun emaita 'humide' galdetari, hitz eratorriak barne: *busti, heze, bella, mardo, ümüxka, ezti, eztixka, eztitüxegi, handi, phezü*. Pentsa nolaz erkatuko ditugun holako erantzun multzoak beste inkesta-puntuenekin!

Nahiz ez den hain maiz gertatzen, hitz abstraktuetan ere igergaitzeko semaren fenomeno bertsua ager daiteke. '*Réprimander*' galdera har dezagun. Iduriz, lexiak /intentsitatea/ semaren arabera agertu behar litezke. Eta hala gertatzen da neurri batean, baina aurretik iger ez zitekeen beste sema bat kontuan hartzen du lekuko batek: /ondorio/ sema. Horra Larzabaleko lekukoak dioena: "*larderiatu, iduritzen zauzu eztiela gehio inen; erasiatu aldiz, sarri berdin eta phasatia hua, berriz hasteko prest*". *Larderiatu* hitzaz ulertzen da beraz norbaitek bere kontrako edo berak egin zerbaiten kontrako entzundakoa haintzakotzat hartzea, norbaiten zentzatzea lortzen duen erasiatzea, ñabardura honek lekukoak erizpide pragmatikoa erabiltzen duela erakusten baitu. Baina

hitz abstraktuen kasuan, aitor dezagun monografiarik egin gabe ez dela errex ikertuko adierazien mugimendua, adibidez '*peur, timidité, honte*' bezalako alorrean, euskarazko *ahalge, beldur, izikor, uzkur, herabe* etabarreko adierazleen arteko zubien eta arroilen mapa zehatzaren egitekotan.

Kasu horietan guzietan, aurretik egindako galdakizunaren egokitasunezaz ohartzen garelarik, mementoko analisis semiko baten asmatzeko ez da uzkur egon behar.

'Gouffre' galdera, pentsatzekoa den bezala, iluna gertatzen da zazpi lexia agertu direlarik: *leize, zenterna, gorga, osin, lüo, losko, laminzilo*. Ondoko semek desberdinketa ekar lezakete lekukoaren ikusmolde subjektiboaren berri emanez: /± idor/ edo /± ura/, /± barna/, /± goitibeherako/, /± horizontala/, /± zoladun/, eta zergatik ez /lanjerosa/, /biltzailea/, /mitikoa/.

Oraixtian polorik gabeko alorrek arazo bat ekartzen zituztela nion. Axiologikoaren eragina liteke bigarren motako zailtasuna. *Jarraiki* aditzaren adibideak gauzak azaldu bide ditu, elementu axiologikoa erabakiorra agertzen dela erakusten baitu. Baxenafarrako herri hanitzetan, aldi oroz segitu aditza eragiten zuten aintzinetik prestatutako galderek: *ardiak zakurrak segitzen ditu* etabar. Azkenean ohartu nintzen *jarraiki* agertarazteko kontestutak erakutsi behar duela aditz horrek lekukoaren baitan adierazten duen moralki on den prozesua. Orduan eta orduan bakarrik, nindabilan eremuetan bederen, agertzen da *jarraiki*, hala nola *jarraiki da/zaio elizari, lanari* eta lekukoaren kulturaren moralki on diren guziei! Alderdi txarra adierazteko ordea eman aditza agertzen ahal da; *ardoari emana*, konparazione. Beraz, *segitu* eta *jarraiki* ez direla sinonimoak onartu beharra dugu, tasun axiologikoa *jarraiki* banako lexikalaren ezaugarri semantiko bat delakotz.

Jarraik gatzazkion beraz gure ildoari. Polarizaziorik-eza eta tasun axiologikoa konbina daitezke, nolaz ez, 's'enivrer' galderaren kasuak erakusten duen bezala, nahiz monografia merezi lukeen galdera horrek. Ondoko erantzunak agertzen direlarik: *berotu, lilitu, ximinotu, karrosa bildu, pottoka bildu, orditu, arraildu, antzarak akhulatu, antzarak bildu, minata egin, aphobelatzak jokatua* izan, etabarreko zerrenda aberatsa bezain nahasia daukagu.

Beharrik, gertatzen zaigu halere galdakizuna aintzinetik aski untsa prestaturik izaita. Alor semantiko batean adierazien eremuak elgarri tinko direlarik, hala nola adibidez, euri-moten eta ara tzarraren izendatzeko, nahiko galdera pausatzen dugu, adierazi bakoitzaren eremua ongi zedarriztatua eta besteatarik bereizgarri izan dadin. Horra, zehaztasun horri esker alor honetako Jutsi herriko erantzunak: *euri, tenpesta, elementak, denbora bihurritu, zirimoleria, jeutsahala, erauntsi, zarrapata, erazarri, euribarrasta, zurrupitaka ari, axeriaren ezteiak, lantzar, lanbrots*. Adierazle hauek oro ongi desberdintzen dituzte ondoan datozen sema hoiek: /± euriaren intentsitatea/, /± erauntsiaren luzeera/, /± haizearen presentzia/, /urtearen sasoina/, /± eguzkia/.

/ur-xorten loditasuna/. Halere sistema ez da erabat binarioa eta sema batzuetan gradazio bat badela kontuan hartu behar da. Baina horrelako sarearen abantaila eskertzekoa da zeren eta beste lexia bat agertzen delarik baitakigu non sar.

1.2. Adieraziak, lekukoak nola sailkatzeo ditu?

Zehaztasuna delarik gure helburua, eta galderen egokitasun semantikoa ikusi dugula, bide beretik ariko gara teorikoki ezaguna den fenomeno batek pratikan ekartzen dituen sorpresak aipatuz. Gertatzen da gure galderen adierazia lekukoak puskatzen duela bi, hiru multzotan, bi, hiru adierazle emanez naski. Edo eta binperrezko kasuan, aurkezten zaion adierazia sobera hertsu zaio eta zehazki doakion adierazlerik bete golkoan lekukoak ez dauka.

Ohartzen den bezala, erran nahi dudana da Whorf eta Sapirek bereziki aspaldian azpimarratu zutena: hizkuntza bakoitzak mundua bere moldean sailkatzen du. Horren ondorioa interesatzen zaigu inkestagintzan, galdera baten adieraziak bi edo hiru lexia erakartzen dituelarik. Adibideak trumilka daude eta ez lexiko berezituetarik hartuak baitezpada.


'Tourbillon, remolino' galdera prestatzen delarik, gerta daiteke zein nahi 'tourbillon' izaita gure gogoan, euskaraz zombait lekukok darabilaten azpisaillkapenari ohartu gabe, erran nahi baita haizearen, airearen ala uraren mugimenduaz ariko garenetz zehaztu gabe. Bi adierazle baitaude euskalki hainitzetan, hala nola *zirimola* (urarena) eta *askaot*, *mahumet*, *khürübilö* (airearena). Beraz erdal adierazle bereko bi galdera, bi unetan egin behar litezke, hala orografiaren eta bestea aroaren alor semantikoetan alegia.

Etnotaxonomiaren alorrean bildu ale zenbait aipatu nahi nituzke sorpresa andana ekarri didatelakotz. Iduriz mugatua eta zerratua den al or horretan, lekukoak sailkapena ez da baitezpada Buffon edo Linnérenarekin bat etortzen.

Lekukoak azaltzen dituzten desberdinketek interes bikoitza badute: lehenik, lexikografiaren aldetik, orain arte jaso ez diren lexiak ezagutzera emaiten dira, eta bigarrenetik, lekukoak jakitate naturalistaren barne-lojikan berri emaiten digute.


Horra hiru adibide, espezien arteko sailkapen diferentek erakusten dituztenak:

1. 'capricorne, cerf-volant, llicano' (3. argazkia). Lekuko zenbaitek arra eta emea desberdintzen dituzte bi izendapen emanez: *basajaun* / *basandere*. Ez ahantz bestalde horrela izendatzen dela ere Iratiko inguruetan bizi omen den pertsonaia mitikoa.



3. argazkia

2. *xipa*, 'vairon, bermejuela' (4. argazkia): lekuko frangok diote *xipa* deitzen duten arrain-motaz bestalde beste arrain badagoela, *burgoatxa*, *erregliza*, *xiparrosa* deitzen dutena. Bainan azkenean ohartu naiz horrela deitzen dutena ez dela arrain mota bat, baizik eta maiatz inguruan, bere ugaltze-denboran, koloreak aldatuz ete buru gainean adartto latzak emanez, beste itxura batez agertzen den *xipa* arra bera.



4. argazkia

3. 'Kukua' (2. argazkia). Bitxi iduritu zitzaidan argazki honen ikustearekin lekuko batek erran zidana, baizik eta ihize hori *belatxa* edo *esparber* edo *flakoin* ez ote zenetz aditzera eman baitzidan. Baina handitu ondoan kukua harrapakari bilakatzen dela beste lekuko frangok segurtaten dute. Lespy-k emandako biarnes esaera batean gauza bera irakur daiteke (Lespy 1892). Eta sineste hori aipatzerik ez du Arruta herriko lekuko batek, bainan ekintza pragmatiko batez hitzik gabe konfirmatzen du: alabainan, kuku bat ikusi orduko armaz tirokatzen du, "baitaki" bestenez urzoak hartuko dizkiola oraindikan kuku baizik ez den ondoko urteko ihizlari lehiakide horrek. Ez da dudarik beraz kukua eta belatxa espezie bera dela taxonomia horretan.

Atal honetan etnotaxonomiaz diodana kontrako adibide batez bukatu nahi nuke. Gertatzen da gure galderari hiperonimo bat biltzea erantzun gisa eta ez hiponimoa; ez da beti errex horretaz ohartzea. 'Salamandre' galderan uste dut hori agitzen den. *Harrulu*, *arlui*, *erlui* lexiak emaiten dizkigute lekukoek baina azkenean adierazle horren pean sartzen dituzte delako 'salamandre' ihizia bai eta ere 'triton' animalea. Xiberoko Basaburuko herri batzuetan ez ahatik, *erluia* 'salamandre' baita xoilik eta 'triton' *talomazoka* deitzen baitute triton horietan sartzen denean han endemikoa den 'euproctus' famatua. Dena den holako diferentziei beti ez ohartzea gure lanaren urratsak berak badakarke.

2.3. Ihespideak

Baina ardu da semantikaren aldetik bilatu nahi izan dugun zehaztasunari beste ikuspuntu batetatik lot nakion. Zehaztasun hori, orain arte, inkestagilearen gain ezarri dugu. Orain aldiz, lekukoa bera nola jokutzen ari den ikertzekoa dela eta zaintzeko pundua dela ikusiko dugu. Eskolatua ez izanik ere, lekukoak bere tranpak eta bere ihespideak badauzka: ezagutu behar dira.

Beraz gure ibilbidearen gune honetan, lekukoak egiten dukeen jokoari so eginen diogu. Batzuetan, joko mota hori nahitara egiten ohi du, partikulazki galderak zailtasunik ekartzen ez dioelarik: orduan, erantzun neutroa eman aitzin, forma ludiko bat, endemikoa edo bertakoa ez den forma bat, forma motibatu bat edo erregistro bateau nabarmenki markatua den forma bat emaiteko tirria edo gogoia ukaiten ahal du. Baina gertatzen ahal zaio ere aitzitik J. Séguy-k deitzen zuen "détresse lexicale" egoeran preso egoitea, galderari zer erantzun ez dakiela. Handik eskapatzeko, hitz baliokide edo paliatiboa zakutik edo zorrotik asmatzen ahal du bere burua esteiari daukanak. Inkestagilearen lana da erantzun horien baliokidetasunaz ohartzea, lekukoak bere altxorrean beste Lexiarik zinez ez ote duen ezagutzen esprabatuz edo frogatuz.

Goazen ihespide horietarik zenbaiten ikustera:

1. Forma ludikoa. Omonez delarik -ez baita arrado- irringarri iduritzen zaion lexia emaiten ahal du lekukoak. Eta kasu hainitzetan, ezagutzen

duen beste nonbaiteko forma da bere lehen erantzuna, eta ez bere herrikoa, nonbaitetik ere.

'Poêle, sarten' galderari, *janfutre* erantzunen du; 'oeuf, huevo' galderari, *oillo-uzker* beste nonbait erraiten dela gehituz. Oraixtian ikusten genuen 'cerfvolant, lucano' intsektua *Lanbako anjelusa* deitu zuen lekuko batek eta horra nota justifikatzen duen: Lanbarre da Urdiñarbeko bazter batean elizarik ez duen kartiel edo auzo bat, eta intsektu horrek bere azantza edo burrunba usaian arrats-apalean entzunarazten baitu, nolazpait anjelusaren ilun-zeinua ordezkatzeko bide du.

Erran gabe doa erantzun ludikoetan sartu behar dela *susara* hitza, galdera delarik 'émoussé'; alabainan, belar epaiteko dailuak ez duelarik gehiago ongi pikatzen, bere ahoa loditurik, lanpusturik edo mutisturik, belarrean gaindi ibiltzen amen da, erran nahi baita susara den behia bezala, beti gainka.

Hanitzetan, izendapen ludiko horiei enpeltatzen zaie txiste bat edo funzio etnodemarkatzaile duen testu bat.

2. Ihespidea izaiten ahal da lekukoak lehenik emaiten duen forma motibatua. Baina ihespide horrek bere izaria badu: *axuria* edo *bildotsa* hitzen ordez, ez du nehorik *ardikume* edo *arkume* aurkezten, nabilan Zuberoan eta Baxenafarran bederen. Bainan ahuntzaren ttipiaren izenak duda gehiago eragiten du. Herri batean, *ahuntzkume* forma motibatua balinbada ezagutzen den erantzun bakarra, urrunago *ahuña* ere ezagutzen ahal da, eta beste nonbait, arbitrario den *pittika* hitza.

Ildo beretik, tranpak eragiten ditu sinonimia azaltzaileak, galderak berak aurkezten duen artefaktoari errefera gisa ez balinbada ere. Nola *deitzen duzu xitak jaten dituen arrapakaria?* - *Xita-jalea* dio xitomiruka lekukoak. Beste formarik ez ote daukan zirikatutako behar da eta *miru*, *ilhaintxa* bezalako formak idokitzen dizkiogu. Ez beti ahatik: beste formarik ez dago *hezurjale* (fr.'gypaète') edo *behien bideko emazte xuria* (fr. 'pernoctère') hitzen ondoan. Erran gabe doa motibazioaz lekukoak egiten duen komentarioa jaso behar dela -delako etimologia herrikoa izanik ere-.

3. Hirugarren ihespide bat, Josette Rey-Debove-k "forma tautologikoa" (Rey-Debove 1978) deitzen duena liteke, eta zail da haren borogatztea. Lexia berezirik ezin emanaz, lekukoak egitura sintagmatiko bat *ad hoc* igortzen du. Inkestagileari dagokio ikustea egitura sintagmatiko hori kodifikatua ala librea denetz. Kodifikatua balinbada eta komunitatean errotua, Benvenisteren hitza onartuz, sinapsia gisa hartzen da eta beraz erantzun gisa homologatzen da.

Dudarik emaiten ez duen adibide bat hortako: 'charrue, arado' baten argazkia ikusiz, *hori lur-iraultzeko da* dio lekukoak. Ariketa aiset batez hori sinapsia ez dela ikusten da, **lur-iraultzeko zahar bat* bezalako sekuentzia ez baita onargarria. Beste hitzik ateratzen ez dueno, lekukoa ez dugu bakean uzten.

Aldiz, iduriz lur-iraultzeko sintagmaren ber egitura duen *kafe-ehotzeko* forma (fr. 'moulin à café') onartzen den lexia da, hura baita Josette Rey-Debovek deitzen duen "un cas réussi de créativité lexicale".

Ihespide eta saiheztibide horietan mugak ez dira oso agerian eta nor nahiri gerta dakioke zepoen - ez ikustea. Bainan gauza bat errepikatu nahi dut: lekukoarengatik lortu duguna, izan dadin lehen, bigarren edo n-garren estimulus baten bitartez, ahalaz transkribitu behar da, lehen ukaldian lekukoak emanikakoa ixildu gabe. Bestela erranez, zer lortu dugun eta nolaz lortu dugun azaldu behar da, kurritu ditugun inguruminguruek informazio baliosa emaiten baitute lekukoaren jokaeraz eta beraz bertako hizkuntzaz, metahizkuntzaz eta kulturaz.

3. Fraseologia

Semantikaren aldetik ikusi ditugun puntu batzuk utzirik, hirugarren atala zabaltzekoa daukagu: fraseologiarena. Ezaguna da erretorikan eta kulturaren fraseologiak duen garrantzia, nahiz euskal inkestetan, nik dakidala, ez zaion leku handirik eskaini. Lexikologian sartzen da fraseologia: lexikologiaren peko muga hitza dela aise onartzen balinbada, gaineko muga non gelditzen den marraztea zailagoa da. Baina esaera -eta fraseologia- muga horretatik kanpo ez dago. Eta hitza baino handiagoko banako funtzionalak beharrezkoak dira hizkuntza baten deskribitzeko.

Bidenabar erran dezadan, erabilera autonomoa galdu duen lexia atzeman daitekeela bakarrik banako fraseologiko batean, euskaraz beste hizkuntzetan bezala. *Txintximaria* bat ('sangsue') zer den ez dakiten lekuko hainitzek hitz bera erabiltzen dute *txintximariak ikusi ditu* esaeran, *asko sofritu* du adierazteko. Onomastika bezala, galdutako lexien gordagia da fraseologia.

Baina lehengo hariari itzuliz, eta aldakortasunari edo kanbiamenduari so eginez beti, fraseologiaren ekarpena ikusten dugu, batetik metaforetan eta konparaketan, eta bestaldetik esaeretan, paremologian eta "diskurtso-banakoetan". Ez da ahantzi behar lexia baten areologia eta haren fraseologiaren areologia askotan elgarretarik bereizten direla eta bakoitzaren eremua beregain dagoela. Erran nahi baita lexia bat bi lekutan ezagutua izanik ere, lexia horrek daukan fraseologia ez dela berbera bi leku horietan.

Jakina bezala, metafora edo konparaketa baten eraikitzeotan handia da konotazioaren pizua: adieraziaren nukleo semikotik sema bat hautatzen da eta hobesten da haren gainean metaforaren edo konparaketaren altxatzeko. Ondorioz ikusten dena hauxe da: adierazlea ez balinbada aldatzen ere, metafora kanbiantzen da, konotazioa aldatzen den ber. Horra besteak beste, hiru posibilitate-mota:

1. Hizkuntza batetik bestera, kate metaforikoek ez dute zertan berdinak izan behar: "c'est un aigle en mathématiques" dia frantsesak. Euskaraz *arrano* erraiteak zentzurik ez luke. Konparaketan gauza bera ezagun da:

Hungarria bezain auherra (auherra = alferra).

Gaskoina bezain konerra (konerra = bihurria, okerra).

Ezin dira hitzez hitz itzuli, itzuli behar badira.

Hain zuzen, diglosiaren pean euskarak jasaiten dituen lehen kolpeak edo ukaldiak fraseologian ikusten dira lexiaren adierazian baina lehenago; fraseologiaren jasotze hutsak bere balioa badu ere hizkuntz-didaktikaren aldetik.

2. Metafora bat ez da beti lexia bezain ubikista izaiten. *Zizari* ('ver de terre, lombric') hitza ezagutzen den eremuan, hitz horrek ez du leku guzietan erabilera metaforikorik: "buruz eme ez den jendea".

3. Metafora badagoelarik ere, ez du beti ber erran nahi semantikoa. *Itxindu*, 'tison' hitzak adibideak kasu hau eskaintzen du. Ala itxindua zeharo erreta dagoen egurra delakoan, "jende inutil halez, lanean hartzeko indarririk ez duen jende zahar" halez erranen da berdin aski krudelki; ala itxinduak sua pizteko oraindik nahiko gar duelakoan, "disputa, aharra, liphizta, liskarra bilatzen duen jende gaiztoaz" erranen da. Kontuan har bi metafora horiek entzun daitezkeela leku batetik bestera hamar kilometro egin gabe.

Xinaurri, 'fourmi' lexemaren kasua sordeis da; hartaz egiten den metaforak bi erran nahi baditu gutienez: alde batetik, La Fontaineren alegian bezala, "jende langile eta prestuaz" erraiten da. Bainan Zuberoko herri batzuetan, "inportantziarik gabeko lana egiten duen jendeaz" erabiltzen den metafora mesprexagarria da. Aldaketa beraz ez da ttipia eta antonimiaruntz garamatza.

Binperrezko adibiderik ere badago. Erreferente baten adierazlea osa diferente izanik, erranikako bi lekutan adierazle diferente biek, erabilera metaforiko bera ezagut lezakete. Adibidez, 'bécasse' deitu xoriaren izena *bekada*, *pekada* da BN eta Lapurdin, *azaia* Zuberoan. Bainan *pekada* nola *azaia* biak baliatzen dira sudurretik dilindan dagoen mukuaren izendatzeko eratzten den metaforan, *tertium comparationis* zer den begien bistakoa delarik.

Metafora eta konparaketatik landa, esaerak ditugu fraseologiaren azken parte honetan. Usaian, esaera bat izaitekotan, hiru baldintza agertzen dira:

1. Haren egitura ez da zeharo "normala", eta aurretik igertzen ez den morfema-sekuentzia bat aurkezten du (egia erran euskaraz ez da askotan gertatzen).

2. Haren funtzionamendua araudi sozio-kulturalek gobernatzen dute. Alde horretatik, txosten honen hatsarrean erraiten nuena oroitarazi behar dut: jasotzen dugun materiala funtzionala da eta kulturala. Eta fraseologia bien arteko zubia izanik, gure obserbazioak hartze ditu.

3. Esaeraren errannahi semantikoak ez da espero daitekeena; igergaitz da, erran nahi analitikoaren eta erran nahi orokorraren arteko tartea handi edo ttipia delarik.

Ez da harritzekorik beraz aldaketa frango jasotzen balinbada esaeren munduan. Horra lau esaera: biga lehenik, haize pikatzen eta naza gaindituko da, Oztibarren ezagunak. Lehenbizikoak 'deusik ez egitea, alfer egoitea' erran nahi du eta esaera sinonimikoa dauka, laborari batek -ahatik ez bain aise artzain batek- eman liroena: gasna egitea. Bigarrenekoak "abiatu den prozesu bat gaizki bukatuko da" glosaz azaltzen ahal da. Bi kasuetan esaeraren semantismoa ezagutzea nahikoa da glosaren egiteko. Bainan sintagma bat ez da beti heldu esaera izaitera. Horrela, aurreko adibidean, naza gaindituko duk hitz-segida esaeratzat ez daukanak "au pied de la lettre" baizik ez du ulertuko. Edo lexia baten inguruan garatu den esaera gogortu eta gizartean onartua da erranahi ezagun eta zehatz batekin, edo enuntziatu libre gisa doi doia baliatzen da.

Fenomeno hori hirugarren adibideak erakusten du: *Karrika egin* esaerak. Hasteko, karrika lexia ez da non nahi ezagutzen; bigarrenekorik, adierazle hori bera ezagutzen denean ere, lau adiera bederen baditu: 'bide barna " 'artebide', 'etxe-multzo (plaza edo burgu)' eta 'arrua, kale, etxeen arteko pasaia'. Hirugarrenekorik, fraseologian, erran nahiak ere aldatzen dira: birla jokoan edo bolajokoan, bola igortzea birla bihirik aurdiki gabe, "karrika egitea" da. Testuinguru hau oso mugatua da, egoera berezi bati hertsiki lotua zaio. Bainan errepikapenaren bortxaz edo, hedatuz joan da kontestu zabalagoetara. Noizbait eta eremu batean edo "huts egin" adieraztera heltzen da erran nahi zabal batez, nahi bada hiperonimo baten moduan, edo "huts egin" kontzeptuak euki lezakeen aplikazio berezi batean kristalizaturik dago. Eta lekuko zenbaitentzat konparazione, "karrika egin" erranen da hauxe adierazteko: aintzinetik hitzartu lekuan eta orduan lagun baten haiduru debaldetan egoitea (frantsesez "se faire poser un lapin"), hori delarik "huts egite" partikular bat. Beste erran nahi berezi bat kreatzen ahal da oraindikan, fraseologian gertatzen den motibazio eta motibazioaren arteko tinkadura dela medio. Beraz esaera guztiz malgu eta mardo da gurea den ikuspuntu diakronikotik ere.

Motibazio gardenik erakusten ez duten esaerak ez dira ments, laugarren adibide batek erakusten duen bezala. Zuberoan bildu dudaxeria igan esaerak ñabardura semantikoak badauzka. Kasu batean, Santa-Grazin, bi jende aski luzaz adiskide egonik, beren artean samurtzen direlarik, esaera bada: "axeria igan zaie". Beste kasuan, Larrañen, ordea, testuingurua hertsia goa da: "axeria igan zaie" erraiten da bakarrik elhaide eta ezkontzeko asmoan ziren bi - gazte elgarretarik aldebat oportzen edo bereizten direlarik. Bigarren erran nahia lehengoaren adierazian barneratzen ahal dela erran genezake, semantikan ezaguna den mugimendu-mota bati jarraikiz. Aldiz kulturaren aldetik, esaera horren motibazioa zein daitekeen mementoko ez dirot segurta.

Esaera horien ondotik, azken mota bat aipatuko dut: esaera hauek "diskurtso-banakakoak" deitzen ditut. Badira alabainan edozein gizartetan, gertakari zenbaiten karietara enuntziatzen diren esaera batzuk, kultura batetik bestera ber kontestuan agertzen ez direnak, hitzez hitz beste mintzaira batetara itzulgaitz direnak, eta dialekto batetik bestera ere aldatzen direnak. Banako horietarik zenbait aipatzen ditut:

1. Jan eta edan aintzineko "diskurtso-banakoak"; batzuetan lekukoa jokatzeko da erantzunen eta erregistroaren bitartez: harrela hire osagarriari! -bai ta hire kharrika beltzari! -eta hire zahagiari! opari-segida entzun daiteke Zuberoan.

2. Urtzain egin ondokoak: *Doministekun!- Ehun urtez! -Hi kondazale!-Astean ollo bat janez!*

3. Agurtzeko eta despeitzeko formulak: Larzabalen entzun dudanak horrela dio: *Adios, esta con Dios, ipurdia pereka zak olioiz*. Iduriz hori entzuten duenak euskara ez dakike. Bestalde, norbaitek lagunuen ondoan igaiten delarik nehor agurtu gabe, formula samin hau entzun lira: *urdeek ere hue egiten die igaitean*.

4. Lagunen artean, argia ustegabetarik hil edo joan ondoan: *Ederrenak argi beza!*

5. Norbaitek ustegabeko bisita baduelarik: *laratzak phika behar du!*

6. Lehen, bortuko olan sartzearekin, iturritik ekarri urarekin jiten zen artzain gazteak: *Benedikamüs!* erran behar amen zuen atsulutoki. Ez bazuen erraiten, "hur hoi eztük xahü" erranez, lira ixurtzen zuten beste artzainek eta jile berria arra-igortzen urka. Horrela eskolaturik, noizbait: *Benedikamüs!* erraiten zuen gazteak eta besteek hari arana egiten: *Dominiüs!*

"Diskurtso-banako" horien agertarazten dituzten enuntziatioa-baldintzak jasa behar dira. Aurreko esaera-motetan garrantzitsua da zer erran nahi den, azken esaera hauetan garrantzitsua da *nork nun eta noiz* zer erraiten duen.

4. Testuak

Azken atala idekitzen dut inkestagintzan biltzen diren testuak eta informazioak aipatuz. Testu hauek guziak etnotestuak direnez erraitera ez naiz ausartuko ez eta sailkapen berririk aurkeztera.

Lehenago ikusi bezala, galdera bati hitz bat soilki lortzea ez dugu nahikotzat jotzen darabilgun inkestagintzan. Beharrezkoa den guzietan, lekukoak bere hitzetan eman definizio bat lortzera entseatzen gara. Jakina da ere alor semantiko baten hitzak lortzekotan, oso ona dela lekukoak berak bere kabuz lexiak naturalki emaita, berak osatzen eta iruten duen testuan gaindi.

Bainan orain azaldu nahi dudana testu metalinguistiko horietaz bestalde biltzen duguna da. Ahozko testuek jakitate entziklopedikoaren elementu bat

eskaintzen dizkigute, izan dadin teknika bat, uste bat, sineste bat, errezeta bat, historio bat, errito bat, mito bat. Ez da gune hoberena hemen testu horien guzieren sailkapena egiteko baina bai atlas hanitzek arrazoi osoz daukaten tituluaren osagai bat gogora-arazteko. Atlas linguistiko askok "etnografiko" izenlaguna daramate beren tituluari, eta ez ustegabeen.

Multzo batetan sartzen ditut, didaktikoak diren testuak, hala nola testu teknologikoak edo eta erran nahi gardena duten testuak. Gehienetan, narratibitatearen legeak ez dituzte segitzen.

Bigarren multzoan, nabariki didaktikoak izan nahi ez diren testuak biltzen ditut: mitoak, ipuiak, kantuak, olerkiak, formulatxoak. Indibiduen eta gizartearen irudimenaz zerbait erraiten digutela pentsatzen dut. Gutxi edo aski antza dute Houis-ek "texte de style oral" deitzen dituen emaitzekin:

texte qui est fixé par une trame en tant que structure mnémotechnique et soutien pour l'attention. qui de plus actualise et valorise le consensus manifesté par autrui en vue d'accueillir et de conserver un certain contenu sémantique conforme à une tradition partagée et acceptée (Rouis 1971 apud 1978).

Eta zerbait erraiten dutelako gure gizarteaz, testu-mota hauek biltzen ditut Derives-en ondoko hitzak gogoan ditudalarik:

[Le texte] au-dessus du contenu narratif intelligible, constitue une forme de langage distinct, servant un discours sur les rapports pas toujours conscients de la société avec leur propre système de valeurs: justification, idéalisation, rejet cathartique, souvent sans intérêt documentaire (Derives 1977).

Ezaugarri hauek dauzkaten testuak ehunka biltzen ditugu. Haien berri emanen dut adibide halez. Xede lexikografikoetaz bestalde, informazio etnografikoa ere biltzen da, ipuin mitologikoak barne. Galdera 'serpent' da:

1. Espero den *suge/sube* forma eman gabe, *larre-aingira* deitzen dela a dioen lekukoak testu bat emaiten du, *ur-aingira* ('anguille') eta *larre-aingira* ('serpent') desberdinez. Herri-taxonomiaren sistema hau interesatzen zaigu et kasu honetan hizkuntza erromanikoetan 'anguis'-ekin gertatu dena gogoraarazten digu.

2. Testu bat lortzen ahal da tabu linguistikoaz, *suge bat hil* ez dela erran behar, baizik eta *kalitu*, eta tabua errespetatzen ez duenak sugeekilako amets gaixtoa egiten duela dion lekukorik badago. Beraz metahizkuntzan sartzen da lekukoa, eta informazio etnografikoa emaiten du.

3. Testu bat lor daiteke suge-larruak duen balioaz, eta herri-medikuntza hunkitzen du: lekuko zenbaitek diotenez, suge-larrua on da jendeen larruan sartzen diren zizta eta elorpen sendotzeko.

4. Testu bat lortzen ahal da sugeen mugimenduetatik denbora-kanbioa igertzen dela dioena: herri-meteorologian sartzen da.

5. Testu bat lortzen da behia batzen duen sugeaz edo sugeari bere esnea emaiten dion behiaz. Gai hau oso ezaguna eta zaharra: ikus 'boa' beraren etimologia latinez.

6. Testu bat lortzen da, oso handiak ziren/diren sugeetaz, ardi bat irensteraina. Edensugea edo dragoi antzeko animalea aipatzen da, lekuko batek kasik urte oroz ikusten baitu airean itsasaldera joaiten, dena su eta pindar. Altzain ezaguna den Azalegiko karbean bizi zen dragoiaren motiboa ere biltzen ahal da bere aldaki batean. Mitoaren munduan sartzen gara.

Ikusten denez, testu batik ez dira denak etnografia materialean sartzen; egia erran, hartu dudak adibideak, sugearnak, alegia, oihartzun azkarra badu gizonaren irudimenean baina mata honetako testuak entzutendira beste galdera frangotan: kukuaz, okiloaz, satorraz, ilhaintxaz, melduaz, ahagoaz... Baina mata bateko testu batetik bestera lekukoa nola eta zergatik joaiten den kasik ezin-igertzekoa da. Zehazkiago, erran nahi dut testu horien sekuentziek bide gordeak segitzen dituztela. Aldiz, lekukoaren jarria edo etorria ez dudanean berehala mozten helburu etnografikoak gogoan ditudala gehitu nahi nuke, bereziki testu baten emaitza ez dela urrun susmatu dudalarik. Lehen erran bezala adibidez, suge edo dragoiaren testua entzun ondoan, gertatzen zait galdegitea ez ote den beste zilorik, animaleak edo jendeak irensten, biltzen eta batzuetan kanpora arra-igortzen dituenik. Baitaude! Estainzia, Etxekortia ondoan Urdiñarben, Makurrosine edo Osinmakur deitu erreka-gunea Bunuzen, Laminzilo Ibarlan, Zilardo Donaxtin, e.a. Ziloei buruzko testuak horrela lortu ditut frangotan, Proppek dragoiaz egindako ikerketa konfirmatzen dutenak eta bereziki dragoiaren izakera ktonianoa.

Lehen eskuko material nasaia eskaintzen dugu testu hauekin. Hain nasaia non gaurtik beretik osa kezkatua nagoen, dokumentazio hori modu errex halez kontsultagarria izan dakien linguistei eta etnologoei. Oinarri informatikoaren lehen fundamenak oratu ditugu berrikitan.

5. Ondorioak

Denak ezin zehaztuz, lexikoaren biltzeko bete behar diren baldintza batzuetatik bestera ibili gara haia haia, begiragune gehiago merezi duten hainitz punturen gainetik jauzi eginez. Zalu ibili bagara ere, metodologia honek dituen puntu nagusiak aski garbi gelditzen dira agian. Lehen partean, material funtzionaletik hasi bagara, emeki emeki material kulturalera jo dugu, fraseologia delarik bien arteko zubi garrantzitsua. Orogen buru, gaurko euskal jendearen ahozko diskurtsoaren lagin aski zabala idokitzen dugu. Baina, oro bar, metodologia hau zein nahi monografia lexikalen obratzeko balia litekela uste dut.

Ohar bat azkenik gutartean zabaldua den terminologia-puntu metaforiko halez. Dialektologi-inkestetan jasotzen den materiala, ohiduraz "biltzen" dela erraiten da, bainan "bilketa" xoilak edo "collecte" hutsa denik ez dut sinesten. Inkesta "bilketa" edo "cueillette" baldinbada, beraz aktibitate bukolikoa, edo diletanteak hutsarteka eta har-uz-ka egiten duen bilketa lasaia, edo prehistoria

denboran, laborantza ezagutu aintzin gure lehengo arbasoek besterik ezean baliatzen zuten bizibide laburrarekin konparatzen baldinbada, bilketa ez da segurki hitz egokia gure inkestari dagokionez. Izaitekotz, ihizi edo arrantza mota bat dela nahiago nuke entzun eta beraz artez bete den arte berezi bat. Aldiz, euskaraz "bildu" aditzak duen beste erran nahia ez nezake gutiets, "bildu" horrek erran nahi balu: "norbaiti gustatu edo kausitu, eta harenganik nahi dena ardietsi, horretarako behar diren harat-hunat guziak asmatuz", hori baita azkenean inkestagilearen eta lekukoaren arteko harremanean gertatzen dena edo gerta ladin nahi genukeena, horrek duen lausengu urrina eta guzti. Beraz inkesta ez da pasiboa eta zainhil egoiteko gunea baizik eta obserbazio eta esperimendu-laboratorio gaitza.

Zernahi gisaz, metodologia horren arabera lortutako emaitzak hor dira: nazioartekoa den biltzar honetan zilegi izan bekit ahatik hemengo erraldoi baten lana aipatzea, Azkuerena alabaina. Guhaur erraldoi ez izanagatik, jakina den bezala, Euskal Herriko Hizkuntz Atlasean edo haren inguruan modu sistematiko halez bildu dugun materiala konpara daiteke Azkueren hiru obra nagusitan dagoenarekin: material funtzionala daillukatzen dugu, Azkuek bere hiztegian eta euskal morfologiaz egin liburuan sartu zuenaren antzekoa, baina material kulturala ere metatzen dugu, etnografiatz eta fraseologiaz bereziki, Azkuek osatu zuen *Euskal-erriaren yakintza* liburuan bezala. Berak bilduak oro ez ditugu bildu, bainan sirets ona izan dugu noiztenka guk ere berak jasa ez zituen datu zenbaiten atzemaiteko.

Lan gaitza badaukagu beraz hemendik aintzina furnitzeko, Euskaldunenganik jasa dugun pizuzko lekukotasun hori ez dadila egon gure kultura eta gure hizkuntza ezagutu nahi duketenen ixilean.

Bibliografia

- DERIVES, J., 1977, "La pluralité des versions et l'analyse des oeuvres du genre narratif oral, d'après un exemple négro-africain", in CALAME-GRIAULE, G., Langage et culture africaines. Essais d'ethnolinguistique, Maspéro, Paris.
- HOUIS, M., 1978, "Pour une taxonomie des textes en oralité", Afrique et langage X, 4-23.
- LESPY, V., 1892, Dictons et proverbes du Béarn. Parémiologie comparée, Pau.
- LYONS, J., 1980, Semantica, Teide, Barcelona, 855 Off.; itz. R. Cerda, [1. arg.: Semantics, 1977]
- QUEMADA, B., 1987, "Notes sur lexicographie et dictionnaire", Cahiers de lexicologie 2, 229-242.
- RAVIER, X., 1965, "Les données négatives dans l'ALG", Revue de Linguistique Romane 115-116, 262-274.
- REY -DEBOVE, J., 1978, "Le sens de la tautologie", Le Français Moderne 4, 318-332.
- VAN GENNEP, A., 1934, "Contribution à la méthodologie du folklore", Lares V-1, 20-34.
- VIDEGAIN, Ch., 1989, Le vocabulaire de l'élevage en Pays d'Ostibarre. Contribution aux archives de l'oralité basque (Thèse Université Bordeaux-III, Dir.: J. Haritschelhar, J.-L. Fossat), V-2178 Off.